

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



C1 maila | Idazmen-proba

Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Idazlana	15	30	90 min

2016ko lehenengo deialdia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO





Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko **90 minutu dituzu.**

Ebaluazio-irizpideak

CI mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Eraso sexistarik gabeko jaien alde

Egoera:

Herriko jaiak hastear dauden honetan, Jaiak Berdintasunez elkarteko kideok emakumeen aurkako sexu-erasoak saihesteko kanpaina abiaraztea erabaki duzue, "Ez, ezetz da!" lelopean. Kontzientzia pizte aldera, herritarrei gutuna idaztea erabaki duzue, etxez etxe banatzeko.

Eginkizuna:

Elkartearen izenean, idatzi **gutuna** martxan jarriko duzuen **kanpaina aurkezteko**, eta zuen **helburuen eta ekimenen berri emateko**; besteak beste: gaiarekiko **sentsibilitatea areagotzea**, jokabide matxistak **salatzea**, eta emakumeek jaiez beldurrik gabe gozatzeko duten eskubidea **aldarrikatzea**.

Lagungarriak:

- Jaietako zapietan leloa idatzi, txosnetan tarteka musika eten eta erasoez ohartarazi...
- Elkarretaratzeak, pankartak, pegatinak...
- Begirune falta, irainak, ukituak, indarkeria...
- Euskal Herrian 15-29 urte bitarteko emakumeen % 32 kalean bakarrik ibiltzearen beldur.
- Nola jokatu erasorik gertatuz gero?



2. gaia: Maskotak ez daude oporretan

Egoera:

Espainiako Estatuan 110.000 txakur eta 40.000 katu abandonatzen dituzte urtero euren jabeek, gehienak uda partean. Areago, zenbaitek tratatu txarrak eman edota hil ere egiten dituzte. Zigor Kodean delitu gisa jaso dago jokabide hori.

Eginkizuna:

Oporrak iristear daudela aprobetxatuz, idatzi **artikulua** herriko aldizkarirako. **Eman zure iritzia** egoerari buruz, **adierazi** zer sentiarazten dizun eta **proposatu irtenbideak** horrelakorik ez gertatzeko.

Lagungarriak:

- Hotel, landa-etxe eta kanpin batzuetan maskotentzat ateak zabalik.
- Animaliak egoitzetan utzi, norbaiten ardurapean...
- Mikrotxipa, osasun-azterketak, txertaketa-liburuxka...
- Zer egin abandonaturiko animaliarik ikusiz gero?
- Animaliak babesteko elkarreak, a holkularitza-zerbitzuak...



**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**